

Berriketan

Debako herri aldizkaria - 200. alea - 2015eko urria

Urte askotarako, Berriketan!





Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak



Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA
20820 DEBA (GIPIZKOA) ase.deba@tefeline.es
Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso

Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi



Pintxoak
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak
Lersundi kalea, 9
Tel. 943 029 436 - 618 644 014
20820 DEBA (GIPUZKOA)

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Seven Clovers

Irish pub

Gozatu gure garagardoa
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Bordatxo

JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afariak: 20:00 / 23:00

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte
**Erredakzio taldea eta
kolaboratzaileak:**

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka,
Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai,
Lukax Dorronsoro, Izaro
Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite
Rodriguez, Gilen Garcia, Eider
Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane
Aizpurua, Haika Aizpurua,
Nekane Goikoetxea, Mattin
Urbietza, Mikel Aizpurua,
Debako Gazte Asanblada,
Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:

Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia:

Erredakzio taldea

Publizitatea:

Joseba Escudero eta

Koldo Aperribai

Tlfnoa.: 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAHIA
HEZKUNTZA POLITIKAREN DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURAL
Viceconsejería de Política Lingüística



Gipuzkoako
Foru Aldundia

aurkibidea

07

KOLABORAZIOA

Nekane Goikoetxea,
("Lagunei ikasia")

08-09

ERREPORTAJEA

"Alzheimerra
erronka modura
ulertu beharra dago"



Ander Salegi

10

KIROLAK

Mendi irteerak abian daude,
Kontxako Bandera,
brontzea urpeko arrantzan...



11-14

B. GAZTEA

Ikasturte hasiera Mendatan,
elkarrizketa, inkesta,
denbora-pasak...



15-17


EUSKAL JAIA

Aurtengo Euskal Jaia
errepasoa, iruditzen



18

ZERBITZUAK



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

200 ale eta *Berriketan* jarraitzeko gogoz

Esku artean duzun aldizkari hau *Berriketan*-en 200. alea da. Lehenengo zenbakiak 1998an ikusi zuen argia, Zuhatza Euskara Elkarte sortu eta urtebetera, eta ordutik bidea egiten jarraitu du argitalpenak; pausoz pauso, politikopoliki, honaino iritsi arte.

Hamazazpi urte pasa dira dagoeneko, hamaika istorio eta protagonista agertu dira tartean eta 200 aldiz irten da labetik *Berriketan*, albisteaz, irudiaz, iritziak, elkarrizketaz... beteta.

Urte hauetan modu batean zein bestean bidelagun izandako guztiei eskerrak emateko espazio faltan legoke *Berriketan*. Baina merezi du 200. ale hau horien denen aipamen txiki bat egiteko

baliatzea. Amaigabea da hilabetekariari eskua luzatu dioten herritar eta elkarten zerrenda, baita haiek burututako eginkizunena ere: albisteak landu, iritzia eman, argazkiak atera, testuak zuzendu, maketazio eta diseinu lanak egin, lantaldia koordinatu, iragarkiak jarri (eta publizitate bila irten!), alea inprimatu, pegatinak jarri, banatu... Bidean lagun eta era berean bizi-iturri ditugun elkarte-ko bazkideak, erakunde publikoak, politikariak... ere eskertu nahiko genituzke. Eta ezin ahaztu, noski, gure irakurleak, ezta bidean utzi gaituzten edo galdu ditugun lagun horiek ere.

Eskerrak asko proiektu honetan sinistu eta parte hartu duzuen guztioi,

Berriketan-ekin bat egin duzuen guztioi, azken finean.

200. alera iritsi bagara ere, argi dugu hau ez dela helmuga nagusia. Izan bedi etorkizunean etorriko diren aukera berrien aurrean zabaltzen den atetxo bat soilik, indarrak hartu eta aurrera jarraitzeko geldiune goxo bat. Eta, bide batez, herritarroi gurekin bidea egiten jarraitzeko gonbitea ere luzatu nahi dizuegu beste behin ere.

Hilabetean behin bada ere, bizilagunen etxe barruetan sartzen jarraitu nahi dugu; euskaraz, noski, nola bestela?

Urte askotarako, *Berriketan!*

ESKERTZA

MAITE ETXEBERRIA ZUBIAURRE

2015eko abuztuaren 1ean hil zen

Inola esperotako notizia
Zaila da oreka mantentzia
Barruko miña nahi det konpartitza
Nola ahaztu zure irribarria
Ile kiskur horren juan etorria
Zainduko degu zuk ereindako hazia
Agur Maite, agur maitia



Familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako elkartasuna, maitasuna eta doluminak.
Etxekoak.



Eskerrik asko, Eli Calleja

Badira urteak Debako kirol anitzaren programaren barnean aerobic-a lantzen duzula. Urte hauetan guztietan Debako ume eta gazte askok eta askok ezagutu zaituzte eta disfrutatu dute zure ilusioarekin eta gogoarekin. Urtetik urtera haur kopuruak hasieran gora egin eta azken urteetan ez du gorabehera handirik izan, eta hori ondo egindako lanaren seinale

baino ez dela uste dut.

Gainera, berez zure zereginak ez ziren eta ez diren beste ekintza batzuk ere bultzatu dituzu urte hauetan, betiere gure umeen hobe beharrez. Elkarbizitza bultzatzea, ardurak hartzea, talde lanaren garrantziaz jabetzea izan dira, besteak beste, landu nahi izan dituzun baloreak. Horrela bada, urte luzeak daramatza-

zu kurtso bukaerako jaialdia prestatzen, betiere haurren eta gazteen inplikazioa sustatzen; azken batean, hauen heziketa-aren parte izaten.

Horregatik, eskerrik asko, Eli. Mila esker egin duzun eta egiten duzun lan guztiagatik.

Arantza Iriondo



Mila esker lagundu gaituzuen guztioi!

Aurtengo udan gaztetxearen eraberritze proiektua abian jarri dugu. Kanpoaldea zein barrualdea margotu, leihoak konpondu, argiztapen egokia ezarri... Baina hau dena ez zen posible izango laguntzera etorri diren pertsoneri esker izan ez balitz, beraz, mila esker etorri zareten guztioi.

Guztion lanaz, guztion etxea!!

Debako Gazte Asanblada



Zurekin hitz egin nahi dut!

Zabalik dago Mintzalaguna programan izena emateko epea

“Zurekin hitz egin nahi dut”. Lelo horrekin abiatu da aurten Mintzalaguna egitasmoa Euskal Herriko hamaika herri-tan, baita Deban ere.

Euskaraz hitz egiteko erraztasuna dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltzeko programa da Mintzalaguna. Hori hala, mintzalagunek, batetik, beren hizkuntza gaitasuna hobetzen dute, hizketarako jariotasuna lortu eta lotsa galduz; eta bestetik, inguruko euskaltzaleei euskaraz bizitzen laguntzen diete, euskararen aldeko ekarpena eginez. Euskara hobetzeko, gehiagotan erabiltzeko, euskaraz bizitzeko, normalizazioaren alde egiteko, ingurune euskalduna sortu, indartu eta zabaltzeko... helburua du egitasmoak eta Deban Zuhatza Euskara Elkarteak kudeatzen du. Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babesten



dute ekimena, eta euskaltegiaren eta Topagunearen laguntza ere badu.

Egitasmoan parte hartzeko baldintza bakarrak euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez batzeko konpromisoa hartzea dira.

Zabalik dago jadanik izena emateko epea (doan). Izen-ematea urriaren 27an bukatuko da, baina berandu iristen bazara, kurtsoan zehar eman dezakezu izena eta eginik dauden taldeetan lekua egingo dizugu. Interesa izanez gero, Zuhatza elkartearekin jarri harremanetan: idatzi koordinatzailea@zuhatza.com helbidera, deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira edo pasa elkartearen bulegotik (Ifar kalea, 12 behea).

Animatu! Ez zara damutuko!

Zuhatza Euskara Elkarte

15-16 IKASTURTEA

Matrikula zabalik

Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariak eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA
- 16 urtetik gorakoentzat
- Langabetu, ikasle eta gurasoek, **MATRIKULA ERDIA**
- Bekatze sistema ikasturte bukaeran
- Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

DEBABA UDAL EUSKALTEGIA
Ifar kalea, 12

Telefonoa: 943 19 22 36

e-posta: udaleuskaltegia.deba@debabe.eus



NEKANE GOIKOETXEA

Lagunei ikasia

Joxe Joakinekin topo egin dut kalean. Lagun bat da. Bere osasunagatik galdetu diot, minbizia izan baitzuen duela 4 urte. Dena ondo dagoela esan dit. Erantsi du 79 urte dituela eta gizonen bizi-esperantza adin jira horretan dagoenez, erregalo bezala bizi izan dituela azken lau urteak; bada-kiela minbiziarekin edo beste zerbaitekin hilko dela aurki. Gizona bere bakardadean.

Adituen esatera, XX. mendeko filosofo garrantzitsuenak, Heideggerrek, gizaki existentzialaren oinarriak jarri zituen 1927an idatzi zuen *Ser y Tiempo* liburuan. Gaur egungo gizartea ezin dugu ulertu bizitzara jaurtia izan den gizakiaren angustia gutako bakoitzarengan esperimentatu arte. Gure heriotza gure bizitzan inkorporatu gabe, gizakia ez dago bere baitan, ez ditu sortu ditzakeen aukerak erabiliko, gauzen eta besteen aferetan dago. Horrela, gizaki postmodernoak hedabideek kontaktzen diotenari erreparatzen dio, lagunek esandako zurrumurruari, lantokiko helburuei, seme-alaben eskakizunei nahiz Euskadiren salbazioari.



Besteen gidoipeko proiektutan dabil etengabe; ixiltasunean egoten ahaztu du, Oteizaren hutsa izaten. Joxe Joakin jakintsua da gaur eta baita bere kuttunenak ere.

Alzheimerria dutenen zaintzaileak leku-koak dira. Pertsona maiteak ezin duenez egin Joxe Joakinek egin duen ibilbidea gaitzaren ondorioz, zaintzaileak dira jostunak, beraiek bizitzara jaurtia izan den gizakiaren *Da Sein* dira, bestearen haragian ikusiz norberaren giza-kondizioa. Giza afera da alzheimerria. Debako herriak aukera bat du jakintsuago izateko gaitz honen inguruan egingo den ikerketa-proiektuari esker.

Espero dezagun Woody Allenen azken pelikulako Joaquin Phoenix existentzialak bezala ez jokatzea. Horiek film amerikarrak baitira, nahiz eta nazismoa sortu zuen Europari eskainia egon.

Heriotza baita bizitzaren gauza serio bat, ekin-tzan jartzen gaituena eta gero datoz memoria ariketak. Alzheimerrek besteen esku lagatzen du bakoitzak bakarrik egin dezakeen lana. Afera publiko bihurtzen du.



Alzheimerraren inguruan hainbat ekimen burutu dira azken asteotan, hala nola Stop Alzheimer Deba proiektuaren aurkezpena, zine emanaldiak, hitzaldiak edo mahai informatiboak. Irudian, Kultur Elkartearen irailean egindako hitzaldia.

“Alzheimerra erronka modura ulertu beharra dago eta, bide batez, gizartea astindu eta saretzeko pizgarri modura”



Ander Salegi

Stop Alzheimer Deba proiektuan parte hartzen duten erakundeetako kideak.

Alzheimer gaitzaren ibilia aspaldikoa da; Alois Alzheimer psikiatra eta neurologoari zor dio izena. Alzheimer Doktorea Frankfurtuko Ospitale Psikiatrikoan lanean zebilela, Auguste Deter Andrea ekarri zuen bere senarrak artatu zezaten; bere esanetan, etxeko lan gehienak egiteko gaitasuna galdua zuen

jada, bere atzetik segika eta zirika ikusten zituen inguruko bizikide guztiak. Alzheimer jaunak egindako itaunketari Deter andrearek eman zizkion erantzunak ez zuten lotura handirik, ez galdetutakoarekin eta ezta momentuko egoerarekin ere. Doktoreak erietxe batean sarrarazi eta jarraipen bat egin zion. Emakumea zendu ondoren, gaixoaren garuna aztertu eta gero, Alzheimer gaitzak eragindako aztarnak finkatu zituzten.

Alzheimer gaixotasun neurodegeneratibo bat da eta dementzia eragiten du. Dementzia, buru nahasketa, ez da zahartzaroaren ondorio bat, hainbat gaitzek eragindako emaitza baizik. Dementziak pertsonaren autonomia murrizten duen heinean, bere inguruan dauden senide, lagun eta bizikide diren guztien bizi-baldintzak eraldatzen ditu; gaixoaren ingurutik, eragin horiek gizarte osora zabaltzen direlarik.

Gaitz honek neuronen arteko loturak, poliki-poliki, kaltetu egiten ditu. Hasiera batean, garunean oroimenarekin lotura duten neuronak jasaten dute, gero, garun azaleko zenbait eremutara hedatuz. Ikuspegi klinikotik aztertuz gero, gaitz honen garapenean hiru fase ageri dira:

- Fase preklinikoa deitzen dena, non garunetako aldaketek ez duten sintomarik eragiten.
- Prodromikoa deitua: bertan agertzen dira lehenbiziko oroimen hutsuneak eta funtzio kognitiboen hondame-



Ander Salegi

naren aztarna batzuk. Hala ere, gaixoak bere egunekotasunari eutsi diezaioke.

- Dementia fasean autonomia erabat galtzen da. Fase honen barruan hiru etapa bereizten dira: arina, ertaina eta aurreratu.

Etxe askotan aspalditik ezagutuko dituzten kontuak dira hauek, Alzheimer gaitza, inoren gonbidapena jaso gabe, sukaldaraino sartua delako, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Gaixotasun honen zabaltze aurreikuspenak izugarriak dira, mende honetako osasungintzarentzat erronka nagusienerakoa bilakatu arte. Baina gaixotasun honen ezaugarriek gizar-tearen konplizitate eskatzeaz gain, konpromiso maila bat ere uztarturik daramate. Alzheimerren erronka modura ulertu beharra dago eta, bide batez, gizartea astindu eta saretzeko pizgarri modura.

Debako Udala, CITA Alzheimer Fundazioa, Osakidetza eta AFAGI-rekin batera egun hauetan aurkezten ari zaigun proiektua, helburu bikoitza bultzatzeko asmoarekin dator; alde batetik, gaitzaren ezagutza zabaldu eta gizarteratzea, eta bide batez gaitz honetan oinarritutako ikerketa zientifiko bat taxutzea. Horretarako Deba eta Itziarko biztanleei deialdi bat luzatu zaie, hirurogei urtetik aurrerako giza taldeari bereziki, ikerketa honetan parte hartu dezaten. Deban eta Itziarren erroldatutako 1560 lagun horiei luzatzen zaie bereziki gonbitea.

IPUINA



Nik badakit hura nor den

Goiz aztoratua zen, 8:30 ziren 80 bat urteko gizon bat ospitalera iritsi zenean nik senda nezan. Gizonak esan zidan estu zebilela eta hitzordua zeukala 9:00etan. Bere bizi ezaugarriak aztertu eta esertzeko esan nion, bere txanda-tokiagatik ordubete eta gehiago itxaron beharko zuela nik har nezakeen baino lehen. Ordulariari begira ikusi nuen, eta, hurrengo gaixoak alde egitean, bere zauria aztertzea erabaki nuen.

Aztertzerakoan, zauri arina zuela ikusi nuen, eta, osakuntzak egiten nizkion bitartean, goiz hartan beste sendagileren batekin hitzordua ote zeukan galdetu nion, urduri ikusten bainuen. Ezetz esan zidan gizonak, geriatrikora joan beharra zuela bere emaztearekin gosaltzera. Honen osasunaz galdegin nion. Aspaldian zegoela han, erantzun zidan, Alzheimer gaitza zeukala eta. Eta, berandu samar joaten bazen, haserretuko ote zitzaion galdetu nion. Aspaldian emazteak ez zekiela berau nor zen; bazirela bost urte emazteak ezin ezagutu zuenetik.

Harritu egin ninduen eta, hala galdegin nion orduan:

-Eta zu goizero joaten al zatzaizkio, hark zu nor zaren ez dakien arren?

Irribarre egin zidan eskua ferekatuz eta hala esan zidan:

-Hark ez daki nor naizen; nik, ordea, badakit hura nor den.

Ipuinaren egilea: ezezaguna.

Moldaketa: Lukax Dorronsoro eta Jose Luis Albizu

Stop Alzheimer Deba deituriko proiektu hau, hainbat ataletan banaturik, emaitza zientifikoak lortzera bideratuta dago, parte hartzaileen anonimotasuna bermatuz. Bolondresak osaturiko talde honi, bai banaka eta baita bere inguruko senideez lagundurik ere, azterketa zabal bat egingo zaio: oroimen test batzuk, galdeketa klinikoak, erresonantzia magnetikoak eta laginak lortzeko puntzio lunbar bat tartean. Hainbat dira proba hauen guztien helburuak: gaixotasuna zenbaterainokoa den ezagutu, diagnostikatu eta tratatu gabeko pertsonak zenbatu, diagnosi goiztiar bat lortzeko estrategiarik onena identifikatu... Ikerketa epidemiologikoaz gain, gaur egun ikerlari eta medikuentzat hain garrantzitsua den diagnostiko goiztiarrean lagundu nahi du proiektu honek, eta Europa osoan egin ez den ikerketa proiektu bat da STOP Alzheimer Deba. Martinez Lage buru duen ikerlari taldeak CITA Alzheimer Fundazioak Donostian duen egoitzan egingo ditu proba batzuk, Debako Osasun Zentroan eta horretarako prestatutako bulegoetan besteak.

Guztionean laguntza eta babesa ezinbestekoak ditu proiektu honek, ez da talde jakin baten zeregina. Gizarte osoaren bultzada sentitu behar dute bai parte hartuko duten bolondresak eta baita gaitz krudel honen hozkadak pairatzen dituzten familia guztiek ere.

Xabier Laka

Mendi irteeretan parte hartzeko deia egin dute Burdin Kurutzek eta Luzaro ikastetxeak



Burdin Kurutz Mendi Taldeak eta Luzaro ikastetxeak 2015-2016 ikasturterako ikasleen mendi irteera egutegia prestatu dute aurten ere. Irailean eman zieten hasiera mendi ibilaldiei, eta urriaren 25ean egingo da bigarren irteera: Larrun (trenez igo)-Ibardin-Mandale-Ibardin.

Hilabetero inguruko mendi eta ingurune ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute 3. mailatik gorako ikasleek, beraiei zuzenduta baitaude irteera hauek. Hala ere, guraso edo laguntzaileekin, txikiagoek ere parte har dezakete.

Umeei zuzenduak izanik, ibilaldi errazak eta erosoak

dira. Irteera puntua gehienetan estalitako pasealekua izango da (autobus geltokia) eta irteera ordua, berriz, goizeko 8:30. Irteera gehienak egun osokoak dira -arratsaldeko 4etan edo 5etan itzuliz-, baina badira egun erdikoak ere.

Mendi irteerak ikasleentzat doan izango dira, Kirol Eskolarraren barruan baitaude. Bazkideek, nagusiek eta gurasoek, ordea, ordaindu egin beharko dute.

Urriaren 25eko irteeraren ostean, azaroaren 22an Arantzazura joateko proposamena egin dute antolatzaileek: -Arantzazu-Arriurdin-Bizkornia-Brinkola-.

Laugarren Kontxako Bandera lortu zuen Urdaibaik, Javi Zulaika eta Ibon Basterretxea debarrak tartean zirela

Bermeoko Urdaibai arraunlari taldeak lortu zuen irailaren lehenengo asteburuan jokaturako Kontxako Banderaren 120. edizioa. Bermeotarrek ohorezko txanda irabazi zuten gizonen estropadan, eta sei segundo eta 80 ehunekoko aldearekin nagusitu zitzaizkien Hondarribiko arraunlariari. Horrela, iazko garaipena errepikatu zuen Urdaibaik; laugarren Kontxako Bandera da Bermeokoentzat.

Javi Zulaika debarra tripulazio irabazlearekin aritu zen lehian oraingoan ere. Aurtengoa hamabigarren denboraldia izan du Urdaibai taldean, eta tripulazioko kiderik betaranoena da. Ibon Basterretxea gaztea, berriz, aurten gehitu zaio taldeari (lehen denboraldia izan du hau).

Lorpen ederra, ezbairik gabe, euren ibilbidean. Zorionak bie!

Brontzezko domina irabazi du Iñigo Atxaren taldeak Espainiako urpeko arrantza txapelketan

Espainiako taldekako urpeko arrantza txapelketan brontzezko domina eskuratu zuen Iñigo Atxa Bedialauneta debarrak. Alex Sarriasek (Donostia), Aitor Garcia-Etxabek (Aretxabaleta) eta Iñigok berak osaturako taldeak Real

Sociedad klubak urpeko jardueretarako duen sekzioa ordezkatu zuen Gijonen iraileko azken asteburuan jokaturako txapelketan. Brontzezko domina Gipuzkoara ekarri zuen taldeak. Zorionak!!



**JOSE A. GALDONA
AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



English Academy

**NORTH
STREET
ENGLISH**

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba



BERRIKETAN GAZTEA

2015eko urria
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.

2015-2016 ikasturtearen hasiera

Irailaren 8an MENDATA BHI institutuko irakasleak eta ikasleak bildu ginen, udako oporrak ondo gozatu ondoren, ikasturte berriari hasiera emateko. Goizeko 11:00etan izan zen aurkezpena, geletako tutoreak beren ikasleekin elkartu ziren, ikasturteari buruzko informazioa emateko: ikastaldeetako egutegia, ordutegia, arloetako irakasleak...

Ikasturte honetan inoiz baino ikasle gehiago daude ikastetxean, guztira 237 ikasle, 12 ikasgelatan banaturik: 1. D.B.H: 66 ikasle; 2. D.B.H: 59 ikasle; 3. D.B.H: 58 ikasle; 4. D.B.H: 54 ikasle.

Aurkezpena ondo joan zen, ikasleak adi egon ziren tutoreek azaldutako datuak ondo entzuteko. Hala ere, hirugarren mailako ikasgeletan urduritasuna zen nagusi, taldeetan aldaketak zeudelako eta beste ikaskide batzuekin egon beharko zirelako. Lehenengo mailako ikasleak, zuzendariak dioenez, oso animatuak zeuden, ez aurreko urteetan bezala. Gainerako guztiak, hau da, bigarren eta laugarren mailakoak, gogotsu eta lasai itzuli ziren.



Hirugarren mailako ikasleak, gelan.

Espazio Astea gure ikastetxean

Urriaren 5etik 9ra Espazio Astea ospatu dugu ikastetxean, Liburutegiko Batzordeak antolatua.

Iñigo Elortza, ikastetxeko irakasle ohia, aste honetan itzuli da Mendata institutura 1. mailako ikasleei hitzaldi bat ematera. Liburutegian izan da aurkezpena, urriaren 5ean eta 6an, arratsaldeko eskola saioetan. 1. mailakoek interes handia jarri dute eta oso gustura parte hartu dute.

"Gizakiak espazioan" izan da gai nagusia. Iñigo Elortzak egindako aurkezpena oso landua zegoen: powerpoint bat zuen prestaturik, baita bideoak, argazkiak... ere. Erraztasun handia izan du jende aurrean hitz egiteko; beraz, 1. mailako ikasleei entretenigarria eta atsegina egin zaie. Ikasleen partaidetza oso handia izan da, beraiek zekitenari buruz edota pelikuletan ikusitakoari buruz galdera eta iruzkin asko egin baituzte.

Iñigo Elortzak, lehen esan dugun bezala, gizakiek espazioarekin duten harremanari buruz hitz egin du eta hainbat gai aipatu ditu, besteak beste: sobietarrak eta estatubatuarrek noiz lortu zuten ilargira iristea, espaziora bidali zuten lehen izakia (Laika izeneko txakurra), nor izan zen ilargira iritsi zen lehen astronauta...

Bera gustura egon da hitzaldia ematen, baita ikasleak aurkezpena entzuten ere.



Espazioari buruzko hitzaldia liburutegian.



ELKA RRIZ KETA



AMAIA FUENTES:

“Oso gazte bukatu nuen karrera eta 18 urterekin hasi nintzen musika irakasten”

Ikasturte honetako lehenbiziko elkarrizketa gure institutuan irakasle berria den Amaia Fuentesi egin diogu. Institutuari eta bere arloari buruzko galderak egin dizkiogu Amaiari.

Zer iruditu zaizu institutua?

Oso ondo dago, herri txikia dela nabaritzen da, ikastetxea oso lasaia da.

Irakasle lanetan aritu izan zara beste instituturen batean? Non?

Bai, institutu askotan egon naiz. Donostian, Bergaran, Errenterian... azkenengoa Errenteriakoa izan zen.

Gustura al zaude hemen? Irakasleekin? Ikasleekin?

Bai, oso gustura nago institutuan. Denekin oso gustura nago.

Zenbat urterekin hasi zinen musika irakasten?

Oso gazte bukatu nuen karrera eta 18 urterekin hasi nintzen musika irakasten. Hala ere, beste bost urtez egon nintzen Kazetaritza, Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasten.

Betidanik gustatu al zaizu musika? Zer instrumentu jotzen duzu?

Bai, betidanik gustatu izan zait musika, nire etxeok musikariak izan direlako. Pianoa, txistua, alboka, dulzaina eta biolina jotzen ikasi nuen, baina beste hainbat musika tresna ere jotzen ditut.

ZER ALDATU DA LEHENENGO MAILAKO IKASLEENTZAT?

Oraingo honetan, lehenengo mailakoei egin diegu inkesta, LHko ikastetxetik institutura pasatzean igarri dituzten aldaketen berri izan nahian. Ea zer aldaketa nabaritu dituzten LHtik DBHra pasatzean:

- 1.- Udan zehar kezkarik izan al duzu? Zein?
- 2.- Zer aldaketa nabaritu duzu LHtik DBHra?
- 3.- Ordutegi aldeak, ohitza kostatu al zaizu?
- 4.- Zein arlo duzu gustuko? Zergatik?
- 5.- Zertan aldatu da zure egunerokoa?



Jokin Narbaiza:

- 1.- Ez, baina nerbioak bai.
- 2.- Hemen askatasun handiagoa dago, gauza gehiago egin daitezke.
- 3.- Ez zait hainbeste kostatu ohitza.
- 4.- Tekno, erremintak gustuko ditudalako; Natur eta Gizarte, oso interesgarriak direlako.
- 5.- Ordutegian batez ere.



Unax Urteaga:

- 1.- Ez dut izan.
- 2.- Lan gehiago egiten dela.
- 3.- Bai, asko.
- 4.- Gorputz Hezkuntza, kirola gustatzen zaidalako.
- 5.- Ordutegian. Goizago jaikitzen naiz.



Enaitz Goikoetxea:

- 1.- Bai, gelen aldaketarengatik.
- 2.- Lan gehiago egiten dela.
- 3.- Bai, pixka bat.
- 4.- Natur eta Gizarte, interesgarriak direlako.
- 5.- Goiz jaiki behar izatean.




Ager Aizpurua:

- 1.- Ez, baina urduritasun pixka bat bai.
- 2.- Irakasle zorrotzagoak eta arlo zailagoak.
- 3.- Bai, lo gehiago egiten ohituta nagoelako.
- 4.- Gorputz Hezkuntza, korrika egitea eta jolasak gustatzen zaizkidalako.
- 5.- Esmatzean eta ikasteko garaian.



Gerson Calo:

- 1.- Ez dut kezkarik izan.
- 2.- Arlo bakoitzean irakasle bat dugu eta arlo ezberdinak dira, iaz baino ordu bat gehiago. Hemen askatasun handiagoa dago...
- 3.- Ez, ohituta nago 7:00etan esnatzen.
- 4.- Teknologia eta Informatika. Betidanik gustatu zaizkidalako halako gauzak.
- 5.- Nire erutina iazkoaren antzekoa da.



Imanol Iciar:

- 1.- Ez gehiegi, baina nire kezka izan ditut. Gela desberdinak izanik, ea zer gela tokatuko zitzaidan, zein ikaskide eta zein tutorerekin...
- 2.- Ordutegia, arlo ezberdinak, irakasle bat arlo bakoitzeko...
- 3.- Ez, ni beti esnatzen naiz goiz.
- 4.- Gorputz Hezkuntza. Gelatik irtetea gustatzen zait gauza ezberdinak egiteko, baita jokoak eta kirola egitea ere.
- 5.- Ez da asko aldatu.




Xabi Iribar:

- 1.- Ez.
- 2.- Kontrolak azkarrago egiten direla eta lan gehiago dauzkagula.
- 3.- Bai, goizago jaiki behar garelako.
- 4.- Gorputz Hezkuntza, korrika egitea gustatzen zaidalako.
- 5.- Ordutegian.



Paula del Olmo:

- 1.- Bai, ez nuelako eskolan hasi nahi.
- 2.- Lan gehiago egin behar ditugula eta zailagoa dela.
- 3.- Ez.
- 4.- Plastika, marraztea gustatzen zaidalako.
- 5.- Ordutegi aldaketan.



DenBord-pasaK

LOGIKA JOKOA

Lau lagun hauek gaixorik daude eta espezialista bat behar dute. Asmatu bakoitza zein sendagilerengana eta noiz joango den kontsultara:

IZENA	ESPEZIALISTA	SENDAGILEA	HILABETEA

- 1.- Kattalinek traumatologoa behar du; beraz, ez da Aramendiren kontsultara joango.
- 2.- Amaiari martxorako eman diote hitzordua.
- 3.- Iñaki ez da Etxezarretarengana joango, ez du neurologorik behar eta ez diote ordua ekainerako eman.
- 4.- Apirilean joango dena ez da Kattalin.
- 5.- Joxek Txapartegi sendagilearengana joko du, baina ez maiatzean, ez ekainean.
- 6.- Petrikorenak ez du lanik egingo ekainera arte.
- 7.- Dentista behar duenari martxoan eman diote ordua Etxezarretaren kontsultara joateko.
- 8.- Iñakik okulistarengana joan beharra du, betaurrekoak behar dituelako.

ERANTZUNAK:

- a) Kattalin, traumatologoa, Petrikorena, ekaina.
 b) Iñaki, okulista, Aramendi, maiatza.
 c) Amalia, dentista, Etxezarreta, martxo.
 d) Joxe, neurologoa, Txapartegi, apirila.

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALDEA 2015-2016

- | | |
|-----------------|---------------|
| Ane Amutxastegi | Jon Muñoz |
| Elene Arratibel | Naia Zabala |
| Ane Ladera | Ane Larrañaga |
| Lara Egaña | Iraide Udabe |
| Haritz Alberdi | Idrissa Sene |
| Julen Ayastuy | Jon Osa |

Koordinatzailea: Tomas Ramos

Aro berriko XVIII. Euskal Jaia

Aurtengo ospakizunaren bueltan antolatutako zenbait ekimenen errepasoa, iruditan

Bertso jaialdia

Irailaren 19an, larunbata, bertso jaialdia egin zen zumardiko karpan. Aldameneko argazkian dituzue saioko protagonista nagusiak: Sebastian Lizaso, Iratxe Ibarra, Amets Arzallus, Amaia Agirre (gai-jartzaille lanetan aritu zena) eta Unai Iturriaga. Oholtza gainean eta bertsotan hainbeste joko eman zuen zuhatza txikia eskuetan hartuta eskaini ziguten argazki-rako posea.



Ez Dok Amairu Sentikaria




Aurten betetzen dira 50 urte Ez Dok Amairu sortu zenetik. Urtemuga dela eta, taldeak azken urteetan taularatutako Sentikariaren antzeko bat birsortu zuten 30 bat herritarrek hilaren 25ean, *Iturri Ondoko* ekitaldietako batean (karpan burutu bazen ere). Kantuak, musika, dantza, olerkiak... saio ederra osatu zuten parte-hartzaileen eta publikoaren artean.



EUSKAL JAIA 2015, IRUDITAN







Agenda

Urriak 25, igandea

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxe-ak antolatuta. Larrun (trenez igo)-Ibardin-Mandale-Ibardin.

-**Ipuin kontaketak**, Agirre jauregiko ispiluen gelan.
17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/18:00etan: 7-12 urtekoentzat.

Urriak 30, ostirala

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

Azaroak 1, igandea

-**Itziarko Peria**. Goizetik hasita, Itziarko poligonoan.

Azaroak 7, larunbata

-Eguerdian. "**Galarraga Euskal Herrira**" lelopean, taloak eta mural margoketa plazan. Sarek antolatuta.

Azaroak 8, igandea

-**Behobia San Sebastian** lasterketarako autobusa antolatu du Xtrem Taldeak. 8:00etan irtengo da, parte-hartzaileak proba hasten den lekura eraman eta lasterketa amaitutakoan bueltan ekartzeko. Izena eman behar da aurrez (Landa janari dendan).

Azaroak 22, igandea

-8:30. **Mendi irteera**. Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxe-ak antolatuta. Arantzazu-Arriurdir-Biozkornia-Brinkola.

Ziriako Andonegi IV. Ipuin Sariketa

-Mutrikuko Udalak Ziriako Andonegi IV. Ipuin Sariketa antolatu du. Euskaraz idatzitako lanak onartuko dira, originalak eta argitaratu gabek, eta beste lehiaketaren batean

saririk jaso gabekoak. Urriaren 30ean amaitzen da lanak aurkezteko epea.

Oinarriak ikusteko edo informazio gehiagorako: Mutrikuko Udala.

Ekintzaileei zuzendutako diru-laguntzak

-Debegesak ekintzaileentzako diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu du. Lanbidek 71.200 euro bideratuko ditu horretara eta gure eskualdean Debegesa arduratuko da diru-laguntzak bideratu eta banatzeaz. Diru-laguntzak, batetik, negozio-ideiaren bat izanik ideia hori aztertu eta garatu nahi dutenei

bideratuko zaizkie eta, bestetik, enpresa edo negozio berri bat ezartzeko bideragarritasun-plana eginda duten ekintzaileei eta proiektu hori abian jartzeko behar diren jarduerak egin nahi dituztenei. Eskaerak azaroaren 9ra arte jasoko dituzte. Informazio gehiagorako: www.debegesa.eus.

Ikastaroak

-**KZguneak** goizeko ordutegia izango du urrian (9:00etatik 13:00etara). Hainbat ikastaro eskainiko dira, tartean

Ofimatikari buruzkoa. Informazio gehiagorako: www.kzgunea.net edo 943 02 36 29 telefono zenbakia.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **urriak 26, 27, 28, 29.**
azaroak 13, 14, 15.

Burgoa Zuazo: **urriak 30, 31.**
azaroak 1, 9, 10, 11, 12.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: urriak 24
azaroak 14 eta 21

BURGOA ZUAZO: urriak 31 / azaroak 7

9:30 - 13:30



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretakeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatz


943 191 383
berriketan.zuhatza.com



MULTIÓPTICAS UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

**ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN**



**MULTIÓPTICAS
Uzuri**



Haztik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
tef.: 943 02 99 63
e-mail: haztik@gmail.com



kutxa
kutxabank



**AUKERA
INMOBILIARIA**

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



**LENTZERIA
Azoka
MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlo.net

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak



**RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



Haizea
Estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazaetik



**ISABEL
FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behe . 20820 DEBA
943 029 186

LAZKUNE
1975etik zuekin!



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



Calbeton
JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



L.A.
LARRAMENDI
ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)



sasoiiko

ekodenda,
dietaetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teka terapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lasañdi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABERO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:
10:00etatik **14:00** etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.** Unibertsitate Institutuzietako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomatura Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomatura. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomatura. **Autran Institutua, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguzul



MUTUAK ETA ASEGUURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguzul!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com